

RONDA KALEAN

Larrakoetxea'tar Franzisko nire lagun aundi bat da. Arreba bat eukan Londres'eko egazkiñetan zereginduta eta egazkiñen zorigaitz negargarrian il jakon. Izan nintzan Begoña'n egin jakon illetan, Larrakoetxea adiskideari eta onen eskon-anai zan Londres'tarrari atseka-bean laguntzen.

Gure Larrakoetxea'k, euskalzalea izanik, Bilbao'n jaioten diran askok lez, ez eban ikasi euskerarik bere ume-arogan. Gizon eginda, arazo askotan sartuta egoala, asi zan euskera ikasten, baiña buruan sartu jakon batua ikasi bear ebala, eta nik bein eta barrero, lenengo bizkaireia ikasteko esan arren, berak batua eta batua esaten eban, euskaldun guztiok bat eginda bizi bear dogulako.

Saltoki eder bat dauka, zazpi edo zortzi langillek laguntzen dautsoela. Oneitariko batek joan dan urtean artu dau zar-saria eta gertakizun au berarizkoa dalako, idazlantxu onetan oroimena, gomutakizuna, egingo dautsagu. Zor jakola uste dot.

Juan Jose Ortega Blanco Bilbao'tarra, zazpi kaleetako Korreo kalean dan saltoki baten zutunik egon da berrogei ta amar urtean sal-maiaren ostean.

Larrakoetxea'tar Frantzisko'k aukeratu eban begiz jota, dendako lanetarako. Zelako aldea orduko alogora gaurkoagaz bardindu ezkerok! Ortega'tar Juan Jose'k artu eban lenengo alogora, kontu-liburuetan agertzen dan lez, 45 pezetakoa izan zan, ez geiago. Bear ba'da beste langilleren bat izan leiteke 50 urteko ekiñaldia bete dauana. Eurok bai leialak eta laguntzaille esane-koak Larrakoetxea'rentzat. Eta Juan Jose'k autortzen dau pozik eta atsegiñez egin dauala beti lan ori. Berak zazpi kaleetako denda oneri berea ba'litz lez begiratzen dautso eta orrelantxe maite dau. Zar-saria eldu jakonean, bagillaren ogei ta laugarren egunean, zeregin onetan jarraitzeak asko ez dautsola balioko etxeari uste izan dau.

Orduko aldietan beste askok lez, Ortega'tar Juan Jose'k mezulari-lana asi eban: "iru mezulari gintzazan -diñosku-. Etxeetara laguntzak eskintzen dei egiten euskuen, baita Ipar-Geltokira be. Urte orretan gure urrutizkiñak 11503 zenbakia eukan". Sarri askotan Aretaraiño joan bear izaten eban arkondaren sama almidoiduak eroaten. Bein baiño geiagotan joan zan Eibar'era be ezer artu barik, egin bear zan lana zalako, baiña noizean bein eskupekoak artzen ebazan ugari alde guztietatik. Benetako burrukak egiten ebezan errialtxu bat emoten eban etxera salgaiak eroateko.

Amazazpi urte bete ebazanean, amaitu jakon mezulari-lana. Adin orretan bizarra kendu, korbatea edo xingola jantzi eta salmaiaren ostean bere lekua artzen asi zan gure Juan Jose: Erosleak ondo artu, aurpegi ona agertu, ara ta ona gelditu barik ibilli, baiña dana ondo izan daiten aspertu barik. Larrakoetxea Frantzisko'gaz iñoz ezin zeitekean egon ezer egin barik. Lana ez zan ito-bearrekoa eta nagusia be ez gogorra, denda aretan etxeko giro pozgarria agiri zan.

Gaur egun, batez be, eunezko eta gaiñeko gauzak saltzen dira, geienetan gizonentzat, baiña orduko 40 urteetan gizon-arkondara ta andra-ator luzeak. Oialgaiak, lumakiak, bururdi bigungarriak, estalki lodiak eta etxean egindako jantziak saltzen ziran, baita ur-jantziak be. Il zan Larrakoetxea'tar Frantzisko, oraingoaren aita, a estuagoa zan gaurkokeriz jatzten diran jantzi batzuk saltzeko. Geroago aren dendearen jabe dan semeari Pako esaten dausoe. Txikitatik izan dot lagun eta zer-kontau asko jatortaz burura. Bein baten aitak tabako-orria erreten aurkitu eban eta ez eutson asarre makala egin!. Pako nitzat adiskide ona da.

EG ILUZEK.

